



Euskararen sentsibilizaziorako pilula:

euskara hobetzeko aholkuak, euskarari
buruzko berriak, euskal kultura eta askoz
gehiago!

1

Elurra eta euskara

Elurra hizpide hartuta, euskaraz hitz ugari ditugu elur-kontuez aritzeko. Zein dira eta **nola erabili behar dira?**

- **Elur-maluta/ elur-mataza, elur-luma:** elurra egiten duenean erortzen diren kristal-multzo arinetako bakoitza izendatzeko erabiltzen dira.
- **Elurra hasi du/ hasi da:** elurraz, euriaz, hotzaz eta kidekoez mintzatzean, hasi aditza du/da motakoa dela dio hiztegiak. Beraz, bi moldeak erabil daitezke.
- **Elur-jausi:** mendi-tontor edo -malkarretatik bat-batean eta burrunban erortzen den elur-pila handia (**elur-jauzi*** ez da zuzena)

Informazio gehiago: uzei.eus

2 'Bizkarsoro' filmaren estreinaldia

Ipar Euskal Herrian film bat euskaraz egitea ezinezkoa dela esan bazioten ere, Josu Martinez zuzendaria ziur zegoen bere helburuaz. Bost urteko prozesu baten ondoren, zuzendariak berak eta Gotzon Barandiaranek **Bizkarsoro filma** aurkeztu dute Durangon.

Filmaren **estreinaldia ostiral honetan** bertan izango da, aldi berean, Euskal Herriko **zazpi lurraldeetan**: Gasteizen (Araba), Durangon (Bizkaia), Tolosan (Gipuzkoa), Baionan (Lapurdi), Donibane Garazin (Nafarroa Beherea), Altsasun (Nafarroa) eta Maulen (Zuberoa).

Bizkarsoro **fikziozko herria** da, baina, aurkezpenean adierazi dutenez, «Euskal Herriko edozein herri izan daiteke». Bai Martinezek bai Barandiaranek uste dute Euskal Herriko edonor identifikatuta sentitu daitekeela filmeko pertsonaiaren batekin edo egoera batekin: «Euskaraz bizitzeagatik jazarriak izan diren euskaldun guztiak dira bizkarsorotarrak».





Languages Lanean Kongresua

Urtarrilaren 18an eta 19an izango da Languages Lanean Kongresua Bilbon.

Hizkuntza-kudeaketa izango da bi egunetako gai nagusia. Hizkuntzaren erabilerari lotutako kezkak dituen lan-eremuko pertsona orok topatuko du ezagutza interesgarria kongresuan. Hainbat galderari erantzuna emateko hitzordua izango da: **nola eman bere lekua hizkuntza bakoitzari? Nola zehaztu elkarren arteko bizikidetzaren egokia? Nola neurtu hizkuntzan duten balio ekonomikoa edota neurtezinak diren balio erantsiak?**

Informazio gehiago: <https://languageslanean.euskadi.eus/>

HIZKUNTZA KUDEAKETAREN ERROKAK
JARDUERA EKONOMIKOAN

RETOS DE LA GESTIÓN LINGÜÍSTICA
EN LA ACTIVIDAD ECONÓMICA

CHALLENGES OF LANGUAGE MANAGEMENT
IN ECONOMIC ACTIVITY

LES ENJEUX DE LA GESTION LINGUISTIQUE
DANS L'ACTIVITÉ ÉCONOMIQUE

Languages
Lanean
Kongresua

**Languages
Lanean**
Kongresua

Eman izena!
languageslanean.euskadi.eus

2024. 01. 18 **Euskalduna Bilbao**
2024. 01. 19 **Guggenheim Bilbao**

#languageslanean languageslanean.euskadi.eus

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

4

Urte-hasierako esaera zahar batzuk

- Urtats, Urteberri, zoroak ere igarri.
- Eguzkiak erretzen badu urtarrila, zoaz eske-zakuaren bila
- Urtarril hotza, neguaren bihotza
- Negu bigunegiak, uda gogorregia
- Negua eguzkitsu, ondoko ura euritsu
- Elurra mendian, haize hotza herrian
- Negu elurtsu, urte garitsu
- Neguak edertzen du uda



Mila esker!

Hurrengo Pilulara arte

Proposamenak, iradokizunak, zalantzak...



i.lizeaga@elhuyar.eus